

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2022KO EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

Ogasun eta Ekonomia Sailak eskatuta egin da txosten hau, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikulua Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitutako eskumena baliatuta.

Txostenaren helburua da, batetik, egiaztatzea behar bezala betetzen dela 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan agindutakoa eta Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaz onartutako jarraibideetan ezarritakoa (genero-eragina aurretiaz ebaluatzeko eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak), eta, bestetik, hobekuntzak proposatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzea da eskatutako txostenak aztertzen duen lege-aurreproiektuaren helburua.

Beraz, xedapen arautzaile orokorra da, eta generoaren arabera zer inpaktu duen ebaluatu behar da, lehenengo jarraibidearen 2.1 apartatuan ezarritakoarekin bat etorritik. Horri begira, generoaren araberrako inpaktuari buruzko txostena eman du arauaren organo sustatzaileak, 1. eranskinean jasotzen diren baldintzetan eta lehenengo jarraibidearen 3. eta 4. apartatuetan aurreikusitakoaren arabera.

Egiaztatu dugu bete egin direla 4/2005 Legean aurreikusitako izapide formalak eta generoaren araberrako inpaktua aurretiaz ebaluatzeko jarraibideak. Horrenbestez, genero-inpaktuari buruzko txostenaren edukiari eta hura egiteko prozesuari dagokienez, honako ohar eta proposamen hauek egin ditugu:

Aipatutako legearen aurreproiektuak generoaren arabera zer inpaktu duen aztertzeko txostenaren edukia baloratu baino lehen, aurretik zenbait gogoeta egingo ditugu

prozesuari berari, egungo egoerari eta prozesua egiteko metodologiari buruz, garrantzitsuak iruditzen baitzaizkigu:

Lehenik eta behin, ***Europako Kontu Auzitegiaren 10/2021 Txosten Berezian*** jasotakoaren ildotik —zeinak eskatzen baitu ahaleginak areagotzea genero-ikuspegia sistematikoki integratzeko EBren etorkizuneko estrategietan eta politiketan, eta, horretarako, batez ere ***genero-ikuspegiko aurrekontua garatzea***— Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) 2022ko Aurrekontu Orokorretan genero-ikuspegia erabat txertatzeko prozesua estrategia baten parte da, eta, horrez gain, lan-prozesu bat ere bada, eta prozesu horrek berariaz eskatzen ditu etengabeko hausnarketa, Ekonomia eta Ogasun Sailaren lidergoa eta Eusko Jaurlaritzako Sail guztien lankidetza, urratsak egiteko benetako berdintasunerantz. Halaber, 2021erako aurrekontuak egiteko prozesuan gertatu bezala, COVID-19aren pandemiak eragindako krisi sanitario, ekonomiko eta sozialak garrantzi handia du, emakumeengan eta gizonengan inpaktu desberdina izan duelako eta horrek, tamalez, lehendik zeuden desberdintasunak larriagotu dituelako. Diagnostikoa esaten den bezala, pandemiaren etorrerak eta hura kontrolatzeko hartu diren neurriek (konfinamenduak, funtsezkoak ez diren jarduera guztiak geldiaraztea edo mugikortasunerako murrizketak, besteak beste) aurrekaririk gabeko krisi sanitario, ekonomiko eta soziala ekarri dute, desberdin eragiten diena emakumei eta gizonei, adinekoei, lan prekarioak edo informalak dituztenei, migratzaileei, pobrezia-egoeran daudenei eta abarrei.

Testuinguru horretan, COVID-19tik eratorritako osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisiari erantzuteko dagoeneko ezartzen ari diren edo ezarriko diren politikek, neurriek eta/edo programek —bai funts propioen bidez garatzekoak, bai Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planari lotutako funtsen bidez garatzekoak—, genero-eraginaren azterketa sistematikoa behar dute, ikuspegi intersektzionaletik, eragin kaltegarriari erantzun hobea emateko eta benetako berdintasunerantz aurrera egiten jarraitu ahal izateko, inor atzean utzi gabe.

Testuinguru horretan, lehen adierazi dugun bezala, Ekonomia eta Ogasun Sailaren lidergoak garrantzi berezia du, ez bakarrik aurreko ekitaldietan genero-inpaktuari buruzko txostena egiteko Jaurlaritzako sail guztiekin lankidetzan hasitako lan-prozedura ezartzeko lanetan, bai, halaber, genero-ikuspegia aurrekontuan benetan txertatzen dela koordinatzeko eta gainbegiratzeko lanetan ere, *inor atzean ez uzteko*.

Era berean, nabarmentzekoa da zeinen garrantzitsua den sailtako eta erakunde autonomoetako berdintasuneko administrazio-unitateek egiten duten lana abian diren lan-prozesuetan, bai eta gaur arte eginiko faseetan eman duten laguntza, aholkularitza eta inplikazioa ere. Horren harira, esan behar da berdintasuneko bi administrazio-unitate sortu direla, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean bat eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian bestea, hartara honako hauek beteta: otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 11. artikulua eta Eusko Jaurlaritzako sailen berdintasun-politikak sustatzeko eta koordinatzeko ardura duten administrazio-unitateak eta horien erakunde autonomo nahiz ente publikoak arautzen dituen azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuaren 3. artikulua. Beraz, zazpi unitate sortu dira honezkero, eta ETS-Euskal Trenbide Sarearen unitatea sortzea besterik ez da falta, hartara 213/2007 Dekretuan xedatutakoa betetzeko.

Sail eskudunaren lidergoaz eta inplikaturako eragile guztien lanaz gain, ezin dugu ahaztu behar den prestakuntza espezifikoa eman behar zaiela aurrekontuetan parte hartzen duten pertsona guztiei, behar diren tresnez horni daitezen. Egindako bidea eta identifikaturako erronkak ikusita, egoki iritzi zitzaion estrategia berri bat diseinatzeari, genero-ikuspegia aurrekontu orokorretan sartzeari bultzada berri bat ematearren, aipatu estrategia modu eraginkorrean ezarri ahal izateko prestakuntza beharrezko eta egokiarekin. Estrategia hori lantze-fasean badago ere, lan-prozesu hori amaitu ondoren, komenigarria litzateke inplikaturako eragile guztiei aurkeztea eta haien artean zabaltzea, 2023ko aurrekontuak egiteko prozesuari begira.

Metodologiari dagokionez, txostena eratzeko, administrazio-prozedura arruntari jarraikiz, sail, erakunde autonomo eta partzuergo guztiek, EITBk eta Osakidetzak txosten bat igorri diote Ekonomia eta Ogasun Sailari, 2022ko aurrekontuetako estrategia orokorra

eta jarduera-lehentasunak azaltzeko. Aurreko ekitaldian bezala eta denboran jarraipena egiteko asmoz, erakundeei eskatu zaie adierazi dezatela labur azalduta, bakoitzaren lan-ildoetatik, zein jarduera egingo dituzten bi ardatz komun lehenetsien esparruan:

- Soldata Arrakalaren aurkako Plana
- EAEko Berdintasunerako VII. Planaren III. ardatza: “Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak”.

EAEko 2021erako aurrekontu orokorren oinarrian dauden jarraibideei dagokienez, horiek COVID-19aren pandemiak eragindako krisi sanitarioari eta horren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuten saiatzen dira. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzaren 2022rako aurrekontuek *jarrera hedakorra dute, ezinbestekoa baita krisitik irteten garela ziurtatzeko eta pandemiak gizarte- eta erakunde-egituretan eragindako kalteak konpontzeko. Ildo horretan, 2022ko aurrekontuek jomuga argiak dituzte: sistema sanitarioa, hezkuntza-sistema, enpresa-sarea (ETEak bereziki) eta kalitateko enplegua indartzea, eta kolektibo zaurgarrienen eta krisiak gehien kaltetutako herritarren beharrei erantzutea. Hala funtsezko lan-ildotzat hartu dira: familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzen laguntzea; etengabeko lanbide-kualifikazioa sustatzea; soldata duinak ezartzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko eta gazteen ibilbide profesionalak ez prekarizatzeko, eta berregituraketan ondorioz baztertutako profesional horiek guztiak gaitzea.*

Alderdi horiek guztiak kontuan hartuta, ontzat jotzen dugu genero-ikuspegia Jaurlaritzaren aurrekontu-jardueran txertatzeko egindako lana, lagungarri baita konpromiso eta lidergo politikoa sendotzeko bidean; ontzat jotzen ditugu, halaber, aurretik aipatutako alderdi inplikatuekin lan teknikoa egiteko estrategiak ere. Horrek guztiak bultzada ematen dio aurrekontu orokorrak egiteko administrazio-prozeduran genero-ikuspegia integratzeko helburuari, ezin baita ahaztu etengabeko ikaskuntza- eta hobekuntza-prozesua dela.

Genero-inpaktuaren txostenari dagokionez, izapidetze-denborengatik ezin dugunez edukia nahi bezain sakon aztertu, jarraian zenbait gogoeta azalduko ditugu:

- **EAEko diagnostiko sozioekonomikoari** heltzen dion apartatuak aztergai du inpaktuari buruzko txostenak Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeetan eta gizonetan krisi sanitario, sozial eta ekonomikoak eragindako inpaktu bereizia, haiek baitira EAEko administrazio publikoen politiken hartzaile nagusiak. Apartatu honetan azaldutako emaitzak abiapuntua dira aurrekontu-programek EAEko emakumeen eta gizonen bizi-baldintzetan duten intzidentzia ezagutu ahal izateko; alegia, abian diren jarduketek zein neurritan ahalbidetzen duten emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren egiturazko fenomeno unibertsal hori ezabatzea.
- Hori horrela, esan beharra dago aurkeztu den inpaktuari buruzko txostenak eskaintzen duen diagnostiko bereziak ikusarazi egiten dituela gizarteko genero-arrakala nagusiak, bai eta COVID-19a haietan izaten ari den inpaktua ere; alegia, COVID-19a emakumeetan eta gizonetan izaten ari den inpaktu diferentziala, osasunari, zaintza-lanari, lan ordainduari, emakumeen aurkako indarkeriari, pobrezari eta bazterketari eta erabakiak hartzeko parte-hartzeari dagokienez.
- Emandako datuek erakusten dute EAEn ere agerikoa dela COVID-19ak emakumeengan eta neskatoengan duen neurriz gaindiko inpaktua, Nazio Batuen Hirugarren Batzordearen «Emakumeak, neskatoak eta COVID-19a» ebazpenak ezartzen duen bezala.
- Pandemia baten erdian, eta horren ondoriozko krisi sanitario, sozial eta ekonomikoan, genero-ikuspegia hartzeak bigarren mailako kezka lirudikeen arren, txostenean emandako datuek erakusten digute pandemiak desberdin eragiten dietela emakumeei eta gizonei; beraz, funtsezkoa da desberdintasun horiek ezagutzea, pertsonengan eta komunitateetan duten inpaktua ulertzeko eta abian jartzen diren politika, neurri eta/edo programen bidez modu efikaz eta bidezkoan erantzuteko.

Sailen gastuari eta haien aurrekontu-programei buruzko azterketari dagokionez,

EAEko Aurrekontu Orokorrari buruzko datu banakatuak eman dira (atalak), aztertutako aurrekontuari buruzko datuak (sailka), baita Osakidetza eta EITBren aurrekontuen azterketa ere. Aztertutako **aurrekontua** honela banatuta dago 2022an:

- **Eusko Jaurlaritzako sailen** aurrekontua (1.-12. atalak, EAEko administrazioari beste ente batzuei egiteko transferentziak kenduta): 6.238.003.098 €.
- Eusko Jaurlaritzako sailei atxikitako **erakunde autonomo eta partzuergoen** aurrekontu osoa: 1.119.037.726 €
- **Osakidetza** administrazio-aurrekontua: 3.472.526.353 €
- **EITBren** administrazio-aurrekontua: 163.058.744 €

Txosten honetan **aztertutako aurrekontua** EAEko **aurrekontu osoaren % 84 da**.

Inpaktuari buruzko txostenean aipatzen da hurrengo fase baterako geratzen dela 00. atalaren eta 51. ataletik 99. atalera bitartekoen eta gainerako entitate, fundazio eta sozietate publikoen azterketa egitea.

COVID-19ak eragindako krisiaren aurkako neurrien 1229. programa ez da aztertu P-Gen formularioaren bidez, baina informazioa ematen da txostenean barrena.

Aurrekontu-programak generoarekiko duen loturari dagokionez, txostenak zera azpimarratzen du: aurrekontu-programen aurrekontuaren % 99,8 jo dira generoarekin lotutako gaitzat. Datu horrek agerian uzten du aurrekontuetan ez dagoela genero-neutraltasunik programen ehuneko oso handi batean. Ehuneko horretatik, % 97an garrantzi handi-ertaina eman zaio generoari.

Garrantzi txikiko aurrekontu gehienak non biltzen diren aztertuz gero, honako sail hauetan kontzentratzen dira nagusiki: Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena (% 40), Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak (% 32) eta Gobernantza Publikoa eta Autogobernua (% 20).

Soldata-arrakalaren aurka borrokatzeko identifikatutako 2022ko aurrekontuari dagokionez, emandako datuen arabera, EAEko aurrekontu orokorraren % 0,678 da, eta Administrazio Orokorraren (1.-12. atalak EAEko administrazioko beste ente batzuei egiten zaizkien transferentziak aparte), haren erakunde autonomoen eta partzuergoen aurrekontu aztertuen % 1,26 (joan den ekitaldian, % 0,67 eta % 1,18 izan ziren, hurrenez hurren). Nabarmenezkoa da 2022an soldata-arrakalaren aurka borrokatzeko identifikatutako berariazko aurrekontua bost milioi eta erdi inguru handitu dela aurreko aurrekontuekin alderatuta. Aurrekontu horren % 81 Hezkuntza Sailak abian jarriko dituen neurriei dagokie, eta % 13 Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari.

Indarkeria matxistaren aurkako borrokarako identifikatutako 2022ko aurrekontuari dagokionez, 2021ean bezala, gora egiten jarraitzen du. 2022an, berriz ere handitu da; hala, EAEko aurrekontu orokorraren % 0,22 da, eta Administrazio Orokorraren aztertutako aurrekontuaren % 0,40. 2021erako identifikatutako ehunekoak % 0,20 eta % 0,36 izan ziren, hurrenez hurren.

Genero-ikuspegiarekin planifikatutako jardueri eta sailek 2022ko aurrekontuen kontura garatuko dituzten eta **genero-ikuspegiarekin diseinatzeko ari diren jardueri dagokienez**, esan behar da aztertutako aurrekontuaren % 16,5 direla (2021ean baino puntu erdi gehiago), Osakidetza eta EITBren alde batera utzita.

Diseinuan genero-ikuspegia sartzeko prozesuan dagoen aurrekontuaren ehunekoa nabarmen altuagoa da. Izan ere, guztizkoaren % 63 da (1.212.187.840 €), hau da, 768.992.015 €. 2022an genero-ikuspegiarekin diseinatutako jardueren aurrekontua % 37koa da.

Xeheago aztertuz gero, ikusten da aurrekontua jarduera gutxitan kontzentratzen dela. Horrela, sail bakoitzeko aurrekontuaren banaketari buruzko daturik nabarmenenak honako hauek dira:

- Lehendakaritza: % 55,5 ZTBP Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planari dagokio, genero-ikuspegiarekin diseinatua, eta % 20,3 Gizarte Trantsizio 1122. programari eta 2030 Agendari, genero-ikuspegiarekin diseinatzeko prozesuan.
- Segurtasuna: % 43,1 genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen segurtasun pribatuari dagokio, eta % 22,6 sailaren mendeko zentroen garbiketa-zerbitzuari; azken hori genero-ikuspegiarekin diseinatzeko prozesuan dago.
- Lana eta Enplegua: % 83 Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta gauzatzeari dagokio, eta % 11,5 emakumeen kualifikazio-maila handitzeari; bi-biak genero-ikuspegiarekin diseinatzeko prozesuan daude.
- Gobernantza Publikoa eta Autogobernua: % 99,4 1214. programari dagokio. Informatika eta Telekomunikazioak, genero-ikuspegiarekin diseinatzeko prozesuan.
- Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena: % 66,5 genero-ikuspegiarekin diseinatutako Hazitek, Bikaintek eta Elkartek programei dagokie, eta % 11,9 7212. programari. Industria-garapena eta ekintzaileei laguntzea, genero-ikuspegiarekin diseinatzeko prozesuan.
- Ekonomia eta Ogasuna: % 97,2 2022ko urteko estatistika-programan biltzen da.

Sail bakoitzari zuzendutako aurrekontu-programen azterketari dagokionez, inpaktu-txostenak xehe aztertu ditu sail guztiak.

Emakundek egindako aurreko egiaztapen-txostenetan bezala, **arau-esparruan** hau aipatzea proposatzen da: «*Generoaren arabera inpaktua aurretiaz ebaluatzeko, eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurrien ezarpenari buruzko jarraibideak, Gobernu Kontseiluaren erabakiz onartu zirenak, 2012ko abuztuaren 21ean*». Izan ere, haietan ezarritakoa betetzen da, nahiz eta

egokitzapen baten bidez izan; funtsean, genero-inpaktua aztertzeko inprimaki berezia (P-GEN) bete behar da, aurrekontu-arauaren izaera bereziaren ondorioz.

Lege-aurreproiektuaren eta inpaktu-txostenaren idazketari dagokionez, oro har, hizkera ez-sexista erabili da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Legearen 18.4 artikuluan agintzen denarekin bat.

Azkenik, aurreko ekitaldietan adierazi dugun bezala eta zailtasunez jabetzen garen arren, berriro adierazten dugu komenigarria dela erakunde honi nahitaezko txostena lehenago eskatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 25a.